

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/115/EE ZUZENTARAUA, 2008ko abenduaren 16koa, egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak itzultzeko estatu kideen arau eta prozedura komunei buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2008/115/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 16 de diciembre de 2008 relativa a normas y procedimientos comunes en los Estados miembros para el retorno de los nacionales de terceros países en situación irregular*». (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 348/98, 2008/12/24koa)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/115/EE ZUZENTARAUA
2008ko abenduaren 16koa
egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak itzultzeko estatu kideen arau eta
prozedura komunei buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute eta, bereziki, haren 63. artikulua 3. paragrafoko b) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedura ⁽¹⁾ bete dute, Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 1999ko urriaren 15ean eta 16an Tanpereko Kontseilu Europarrak immigrazioari eta asiloari buruzko planteamendu koherentea ezarri zuen. Planteamendu horren baitan, aurreikusten da, legezko immigrazioarako politika, legez kanpoko immigrazioaren aurkako borroka eta asilo-sistema komuna aldi berean sortzea.

(2) 2004ko azaroaren 4ko eta 5eko Bruselako Kontseilu Europarrak kanporatzeko eta aberriatzeko politika eraginkorra ezartzea eskatu zuen, arau komunetan oinarritutakoa, pertsonak itzultzerakoan haien giza eskubideak eta duintasuna erabat errespetatzeko eta modu gizatiarrean egiteko.

(3) 2005eko maiatzaren 4an, Europako Kontseiluko Ministroen Batzardeak «Nahitaezko itzulerari buruzko hogei jarraibide» onartu zituen.

(4) Beharrezkoa da arau argiak, gardenak eta justuak finkatzea itzulera-politika eraginkorra ezartzeko, ongi kudeatutako migrazio-politikaren beharrezko elementu baita.

(5) Komenigarria da Zuzentarau honek arau-multzo horizontala ezartzea, estatu kideetako batean sartzeko, egoteko edo bizitzeko baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazional guztiei aplikatu ahal izateko.

(6) Beharrezkoa da bermatzea estatu kideek hirugarren herrialdeetako nazionalen egoera irregularra amaitzeko prozesua prozesu justu eta gardena izango dela. Erkidegoko Zuzenbidearen printzipio nagusiei jarraiki, Zuzentarau honen esparruan hartzen diren erabakiak modu banakakoan hartu behar dira, eta irizpide objektiboetan oinarrituz. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla beste zenbait faktore ere, egoera irregularrean egote hutsaz gain. Inprimaki-ereduak erabiltzen direnean itzulerari buruzko erabakietarako, hau da, itzulera-erabakietarako, eta kanporatze- eta sarrera-debekuen erabakiak onesten badira, estatu kideek printzipio hori errespetatu behar dute eta Zuzentarau honetako aplikatu daitezkeen xedapen guztiak bete behar dituzte.

(7) Itzulera-prozesua errazteko, azpimarratu behar da beharrezkoa dela berriz hartzeko hitzarmenak izatea, bai Erkidego mailakoak, bai aldebikoak, hirugarren herrialdeekin. Itzulera-prozesuaren fase guztietan jatorrizko herrialdeekin nazioarteko lankidetzaz izatea itzulera iraunkorra lortzeko alde aurreko baldintza da.

(8) Aitortzen da zilegi dela estatu kideek egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeko nazionalak itzultzea behartzea, betiere asilo-sistema justuak eta eraginkorrak badaude, ez-itzultzearen printzipioa erabat errespetatzen dutenak.

(9) Kontseiluaren 2005eko abenduaren 1eko 2005/85/EE Zuzentaruaren ⁽²⁾ arabera —estatu kideek errefuxiatu-izaera emateko eta kentzeko aplikatu behar dituzten prozeduretarako gutxienezko arauak buruzkoa da—, hirugarren herrialde bateko nazional batek asiloa eskatzen badu estatu kide batean, aipatutako estatu horren lurraldean nazional haren egoera egoera irregularizat jotzeko ezinbestekoa izango da eskaera onartzen

¹ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008eko ekainaren 18koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 9koa.

² L 326 EO, 2005.12.13koa, 13. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ez duen erabaki bat indarrean egotea, edo asilo-eskatzaille gisa egonaldi-eskubidea bukarazten duen erabakia indarrean egotea.

(10) Borondatezko itzulera lehenetsi behar da nahitaezko itzuleraren ginetik, ez badago arrazoirik uste izateko hori eginez gero itzulera-prozeduraren helburua oztopatzen dela; eta epe bat eman behar da borondatez irteteko. Borondatez irteteko epea luzatzeko aukera aurreikusi behar da, kasu konkretu bateko egoera zehatzetan beharrezkoa izanez gero. Borondatezko itzulera bultzatzeko asmoz, estatu kideek itzultzeko laguntza eta aholkularitza zabalagoa eman behar dute, eta ahal bezain ondo erabili behar dira Itzulerarako Europako Funtsaren esparruan eskainitako finantza-aukerak.

(11) Itzulerari buruzko erabakien berme juridikoen gutxiengo multzo komuna ezarri behar da, kasuan kasuko pertsonen interesak modu eraginkorrean babesten direla bermatzeko. Baliabide nahikoak ez dituzten pertsonen behar duten laguntza juridikoa eman behar zaie. Estatu kideek estatuko legedian aurreikusi beharko dute zein kasutan izango den beharrezkoa laguntza juridikoa.

(12) Egoera irregularrean izanik oraindik kanporatu ezin diren hirugarren herrialdeetako nazionalen egoerari heldu behar zaio. Bidezkoa da haien biziraupenezko oinarrizko baldintzak definitzea, legedi nazionalari jarraituz. Zer egoeratan dauden zehazten duen idatzizko agiria eman behar zaie pertsona horiei, administrazioaren aldetik kontrolak edo egiaztapenak egonez gero, bizi duten egoera konkretua egiaztatu ahal izateko. Estatu kideek aukera izan behar dute idatzizko agiriaren itxura eta formatua erabakitzeke, eta Zuzentarau hau dela medio hartutako itzulerari buruzko erabakietan ere jaso ahalko dute.

(13) Hertsaneurriak erabili behar badira, horiek lortu nahi diren helburuekiko proportzionalak izan behar dute eta erabilitako baliabideen efikaziari eutsi. Gutxieneko bermeak finkatu behar dira nahitaezko itzulera burutzeko, eta horretarako kontuan hartu behar da Kontseiluaren 2004/573/EE Erabakia ⁽¹⁾, 2004ko apirilaren 29koa, kanporatze-ebazpenak jaso dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak bi estatu kide edo gehiagoren lurraldetik kanporatzeko hegaldi bateratuak antolatzeari buruzkoa. Estatu kideek hainbat aukera izan beharko dituzte nahitaezko itzulera kontrolatzeko.

(14) Itzulera-neurri nazionalak bultzatzeko dimentsio europarra osatu behar da, estatu kide orotako lurraldean sartu eta egotea eragotziko duen sarrera-debekua ezarriz. Sarrera-debekua ezartzeko, kontuan hartu behar dira kasu bakoitzaren egoera zehatz guztiak, eta normalean ez da bost urte luzeagoa izango. Horri dagokionez, bereziki kontuan hartu behar da hirugarren herrialdeko nazional batek itzulera-ebazpen edo kanporatzeko agindu bat baino gehiago jaso izana, edo estatu kide baten lurraldera iritsi izana sartzeko debekua indarrean zegoela.

Estatu kideei dagokie ebatzea itzulerari buruzko erabakiak berraztertzeak ahala ematen dien edo ez ikuskatze-lan hori egiten duen agintari edo erakundeei haiek hartutako erabakiak lehenago hartutakoa ordezkatzeko.

(16) Kanporatzeko barneratze-baliabideak proportzinaltasunaren printzipiora mugatu eta horren menpe egon behar du, erabilitako baliabideei eta lortu nahi diren helburuei erreparatuz. Itzulera prestatzeko edo kanporatze-prozesua burutzeko soilik justifikatuko da barneratzea, eta hain hertsagarriak ez diren neurriak nahikoak ez badira.

(17) Barneratze-erregimenean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak tratu duina eta gizatiarra jaso behar dute, haien oinarrizko eskubideak errespetatu eta nazioarteko zein estatuko zuzenbideari egokitzen zaiona. Barneratze-zentro berezituetan barneratuko dira, nahiz eta, hasieran, polizia-zerbitzuek atxilotu, legedi nazionalari jarraituz.

(18) Gainerako estatu kideek egindako sarrera-debekuei buruzko informazioa berehala jasotzeko aukera izan behar dute estatu kideek. Informazio-truke hori 1986/2006/EE Erregelamenduaren ⁽²⁾ arabera egin beharko da. Erregelamendu hori Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena da, 2006ko abenduaren 20koa, bigarren belaunaldiko Schengen informazio-sistema (SIS II) ezarri, martxan jarri eta erabiltzeari buruzkoa.

(19) Zuzentarau hau gauzatzearekin batera, itzulera-prozesuaren maila guztietan inplikaturako erakundeen arteko lankidetzak gauzatu behar da, eta jarduera onenak trukatzeko eta bultzatzeko, horrek balio erantsi europarra ekarriko dio-eta.

¹ L 261 EO, 2004.8.6koa, 28. or.

² L 381 EO, 2006.12.28koa, 4. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(20) Estatu kideek ezin dutenez Zuzentarau honen helburua modu egokian lortu (hau da, arau komunak ezartzea itzulerari, kanporatzeari, hertsaneurrirei, barneratzeari eta sarrera-debekuari buruz), eta hortaz, Zuzentarau honen dimentsioak eta ondorioak direla medio modu egokiagoan lor daitekenez Erkidegoaren bidez, Erkidegoak neurriak har ditzake Tratatuaren 5. artikuluan ezarritako subsidiarotasun-printzipioari jarraituz. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(21) Estatu kideek Zuzentarau hau inolako bazterketarik egin gabe aplikatu beharko dute; alegia, inor baztertu gabe sexua, arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sineskerak, iritzi politikoak edo beste edonolakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondasunak, jaiotza, elbarritasuna, adina edo sexu orientazioa dela medio.

(22) 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren arabera, "haurren interes gorenek" estatu kideen funtsezko ardura izan behar dute Zuzentarau hau aplikatzerakoan. Giza Eskubideak eta Oinarizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren arabera, familia-bizitzaren errespetuak estatu kideen funtsezko ardura izan behar du Zuzentarau hau aplikatzerakoan.

(23) Zuzentarau hau aplikatzerakoan ez dira alde batera utzi behar 1951ko uztailearen 28an Genevan Errefuxiatu Estatutuari buruzko Konbentziotik eratorritako betekizunak (konbentzio hori 1967ko urtarrilaren 31n New Yorken egindako Protokoloak aldatu zuen).

(24) Zuzentarau honek errespetatu egiten ditu oinarizko eskubideak eta aintzat hartzen ditu, zehazki, Europar Batasunaren Oinarizko Eskubideen Gutunean onartutako printzipioak.

(25) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloa Europar Batasunaren Tratatuan eta Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuan dago atxikia. Protokolo horretako 1. eta 2. artikuluen arabera, Danimarkak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez dauka erabaki hori zertan aplikatu. Schengen muga-kodearen ⁽¹⁾ arabera sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Schengengo Altxorreko xedapenak garatzen ditu Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren hirugarren zatia IV titulua dela medio. Danimarkak, aipatutako Protokoloaren 5. artikuluen arabera, Zuzentarau hau onetsi eta sei hilabeteko epean erabakiko du legedi nazionalan sartuko duen edo ez.

(26) Schengen muga-kodearen arabera dokumentu hau sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Erresuma Batuak parte hartzen ez duen Schengengo Altxorraren xedapenak garatu ditu (Kontseiluaren 2000ko maiatzaren 29ko 2000/365/EE Erabakia ⁽²⁾, Britainia Handiko Erresuma Batuaren eta Ipar Irlandaren eskaerari buruzkoa da, Schengengo Altxorraren zenbait xedapenetan parte hartzeko). Bestalde, Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarreraren gaineko Protokoloaren (Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari atxikita dago) 1. eta 2. artikuluen arabera, eta Protokolo horretako 4. artikuluan xedatutakoan eraginik izan gabe, Erresuma Batuak ez du Zuzentarau hau onesterakoan parte hartzen, eta hortaz, ez dago erabat lotetsita eta ez du zertan aplikatu.

(27) Dokumentu hau Schengen muga-kodearen arabera sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Irlandak parte hartzen ez duen Schengengo Altxorraren xedapenak garatu ditu (Kontseiluaren 2003ko otsailaren 28ko 2002/192/EE Erabakia ⁽³⁾, Schengengo Altxorraren zenbait xedapenetan parte hartzeko Irlandaren eskaerari buruzkoa). Bestalde, Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarreraren gaineko Protokoloaren (Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari atxikita dago) 1. eta 2. artikuluen arabera, eta Protokolo horretako 4. artikuluan xedatutakoan eraginik izan gabe, Irlandak ez du Zuzentarau hau onesterakoan parte hartzen, eta hortaz, ez dago erabat lotetsita eta ez du zertan aplikatu.

(28) Islandia eta Norvegiaren kasuetan, dokumentu hau Schengen muga-kodearen arabera sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiako Erresumarekin Schengengo Altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako

¹ 2006ko martxoaren 15ean Europako Parlamentuak eta Kontseiluak hartutako 562/2006 (EE) Erregelamendua, pertsonen mugak zeharkatzeko Erkidegoko arau-kodea ezartzen duena (Schengen muga-kodea) (L 105 EO, 2006.4.13koa, 1. or.)

² EO L 131, 2000.6.01ekoa, 43. or.

³ L 64 EO, 2002.3.07koa, 20. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Akordioaren aldetik. Akordio hori garatzeko zenbait arauri buruzko Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren ⁽¹⁾ 1. artikuluko aipatutako C puntuaren arloan sartzen dira xedapen horiek.

(29) Suitzaren kasuan, Zuzentarau honek, dokumentu hau Schengen muga-kodearen arabera sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederakundearen artean Suitzar Konfederakundeak Schengengo Altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako Akordioaren aldetik. Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko aipatutako C puntuaren arloan sartzen dira xedapen horiek, Kontseiluaren 2008/146/EE Erabakiari, Europako Erkidegoaren izenean aipatutako akordioa sinatzeari buruzkoari ⁽²⁾, lotuta.

(30) Liechtensteinen kasuan, dokumentu hau Schengen muga-kodearen arabera sarrera-baldintzak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeetako nazionalak aplikatzen zaien neurrian, Zuzentarau honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren, Suitzar Konfederakundearen eta Liechtensteingo Printzerriaren arteko Protokoloaren, Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederakundearen artean Suitzar Konfederakundeak Schengengo Altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako Akordiora Liechtensteingo Printzerria atxikitzeari buruzkoaren aldetik. Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiaren 1. artikuluko aipatutako C puntuaren arloan sartzen dira, Kontseiluaren 2008/261/EE Erabakiaren 3. artikuluari, Europako Erkidegoaren izenean aipatutako Protokoloaren xedapen batzuk sinatzeari eta behin-behineko aplikatzeari buruzkoari ⁽³⁾, lotuta.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Xedea

Zuzentarau honek egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak itzultzeko estatu kideetan aplikatu beharko diren arau eta prozedura komunak ezartzen ditu, oinarritzko eskubideei jarraiki, tartean Erkidegoko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbidearen printzipio orokor diren aldetik, errefuxiatuak eta giza eskubideak babesteko obligazioa barne.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau estatu kide bateko lurraldean egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeko nazionalak aplikatuko zaie.

2. Estatu kideek Zuzentarau hau ez aplikatzea erabaki ahalko dute hirugarren herrialdeko nazionalak, egoera hauetan daudenean:

a) Schengen muga-kodearen 13. artikulua arabera sarrera ukatu zaienei, edo estatu kide baten lurreko, itsasoko edo aireko kanpo-mugak modu irregularrean zeharkatzeagatik agintari eskudunek atxilotu edo atzeman dituztenei, ez badute ondoren estatu kide horretan gelditzeko baimenik edo eskubiderik jaso.

b) Estatuko legediaren arabera, zigor penala dakarten edo zigor horretatik eratorri diren itzultze-neurrien mende daudenei, edo estradizio-prozeduren mende daudenei. 3. Zuzentarau hau ez zaie aplikatuko aske zirkulatzeo Erkidegoko eskubidearen onuradunei, Schengen muga-kodeko 5. paragrafoko 2. artikulua definitzeko jarraituz.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

¹ L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 31. or.

² L 53 EO, 2008.2.27koa, 1. or.

³ L 83 EO, 2008.3.26koa, 3. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1) «hirugarren herrialdeko nazionala»: Tratatuaren 1. paragrafoaren 17. artikulua araberan Batasuneko herritarra ez den eta Schengen muga-kodearen 5. paragrafoko 2. artikulua definizioaren arabera aske zirkulatzeko Erkidegoko eskubidearen onuraduna ez den edozein pertsona;

2) «egoera irregularra»: estatu kide baten lurraldean hirugarren herrialde bateko nazional bat egotea Schengen muga-kodearen 5. artikuluan xedatutako sarrera-baldintzak edo estatu kide horretan sartzeko, egoteko edo bizitzeko beste baldintza batzuk bete gabe;

3) «itzulera»: hirugarren herrialde bateko nazionala itzultzeko prozesua, borondatez itzultzeko betebeharra betetzeko edo nahitzeko itzulera delako, — bere jatorrizko herrialdera, edo — igarotze-herrialde batera, Erkidegoko edo aldebiko berriz hartzeko akordioen edo beste mota bateko akordioen arabera, edo — hirugarren herrialde bateko nazionalak bere borondatez erabakitzen duen eta onartua izango den beste hirugarren herrialde batera.

4) «itzulera-erabakia»: hirugarren herrialde bateko nazional baten egoera irregularra dela adierazten duen eta itzultzeko betebeharra inposatu edo aitortzen duen erabaki edo jarduera, administratiboa zein judiziala.

5) «kanporatzea»: itzultzeko betebeharra gauzatzea, hau da, estatu kidetik fisikoki kanpora eramatea.

6) «sartzeko debekua»: denbora-epe jakin batean estatu kide baten lurraldean sartzea eta egotea debekatzen duen erabaki edo jarduera, administratiboa zein judiziala, itzulera-erabaki bati lotutakoa;

7) «ihes egiteko arriskua»: itzulera-prozeduren menpe dagoen hirugarren herrialdeko nazional batek ihes egin ahal duela pentsaraz dezaketen arrazoiak egotea, legeak definitutako irizpide objektiboetan oinarrituta.

8) «borondatez irtetea»: itzulera-erabakian horretarako zehaztutako epean itzulera-betebeharra betetzea.

9) «pertsona ahulenak»: adin txikikoak, bakarrik dauden adin txikikoak, desgaituak, adinekoak, haurdun dauden emakumeak, adin txikiko seme-alabak dituzten eta bakarrik dauden aitak edo amak, tortura, bortxaketak edo beste edonolako indarkeria psikologikoa, fisikoa edo sexuala jasan duten pertsonak.

4. artikulua

Xedapen onuragarriagoak

1. Zuzentarau honek ez die kalterik eragingo onuragarriagoak diren xedapen hauei:

a) Aldebiko edo alde anitzeko akordioei, Erkidegoak hirugarren herrialde batekin edo batzuekin egindakoei, edo Erkidegoak eta estatukideek hirugarren herrialde batekin edo batzuekin egindakoei.

b) Aldebiko edo alde anitzeko akordioei, estatu kide baten edo batzuen eta hirugarren herrialde baten edo batzuen artean lortutakoei.

2. Zuzentarau honek ez dio kalterik eragingo hirugarren herrialde bateko nazional batentzako onuragarriagoa izan daitekeen immigrazioaren eta asiloaren esparruko Erkidegoko ondareko beste edozein xedapeni.

3. Zuzentarau honek ez dio kalterik eragingo aplikatzen den pertsonentzako onuragarriagoak diren xedapenak onartu eta mantentzeko estatu kideek duten eskubideari, betiere xedapen horiek Zuzentarau honekin bateragarriak badira.

4. 2. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo dauden hirugarren herrialdeetako nazionalen kasuan, estatu kideek:

a) bermatuko dute trataera eta babes maila atal hauetan ezarritakoak bezain onak direla: 8. artikuluan, 4. eta 5. paragrafoetan (hertsaneurrietara jotzea mugatzekoa); 9. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian (kanporatzea atzeratzea), 14. artikuluko 1. paragrafoko b) eta d) idatz-zatietan (larrialdiko osasun-laguntza eta pertsona ahulenen beharrianak kontuan hartzea), eta 16. eta 17. artikuluetan (barneratze-baldintzak), eta

b) ez itzultzeko printzipioa errespetatuko dute.

5. artikulua

2008/115/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 348/98, 2008/12/24koa)

Ez itzultzea, umearen interes gorena, familia-bizitza eta osasun egoera

Zuzentarau hau aplikatzerakoan, estatu kideek behar bezala aintzat hartu beharko dute: Hirugarren herrialde bateko nazional baten a) umearen interes gorena, b) familia-bizitza eta c) osasun egoera, eta ez itzultzeko printzipioa errespetatuko da.

II. KAPITULUA

EGOERA IRREGULARRA AMAITZEA

6. artikulua

Itzulera-erabakia

1. Estatu kideek itzulera-erabakia onartuko dute haien lurraldean egoera irregularrean dagoen hirugarren herrialde bateko edozein nazionalen aurka; nolana ere, 2. eta 5. paragrafoetan aurreikusitako salbuespenei eutsiko zaie.

2. Estatu kide baten lurraldean egoera irregularrean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak beste estatu kide batek emandako baliozko egoitza-baimena edo egoteko baimena ematen duen beste edozein baimen badute, berehala estatu kide horren lurraldera joatea eskatuko zaie. Hirugarren herrialde bateko nazional batek ez badu eskaera hori betetzen, edo ordena publikoagatik edo estatu-segurtasunagatik berehala irtetea beharrezkoa bada, 1. paragrafoa aplikatuko zaio.

3. Estatu kideek haien lurraldean egoera irregularrean dagoen hirugarren herrialde bateko nazional baten aurka itzulera-erabakia hartzean abstenitu ahalko dira beste estatu kide batek aipatutako nazionalaren ardura hartzen badu, Zuzentarau hau indarrean sartzen denean indarrean dauden alde biko akordio edo hitzarmenen arabera. Kasu horretan, hirugarren herrialde bateko nazional horren ardura hartu duen estatu kideak 1. paragrafoa aplikatuko du.

4. Edozein unetan, estatu kideek erabaki ahalko dute haien lurraldean egoera irregularrean dagoen hirugarren herrialdeko nazional bati arrazoi humanitarioak edo beste mota batekoak direla medio egoitza-eskubidea ematen duen egoitza-baimen autonomo bat edo beste baimen bat ematea. Kasu horretan ez da itzulera-erabakirik hartuko. Hartuta egonez gero, itzulera-erabakia ezeztatu egingo da edo eten egingo da egoitza-baimena edo estatu kidean egoteko eskubidea ematen duen beste edozein baimen baliagarria den denborartean.

5. Estatu kide baten lurraldean egoera irregularrean dagoen hirugarren herrialdeko nazional batek egoitza-baimena edo egoteko eskubidea ematen dion beste edozein baimen berritzeko prozedura bukatu gabe badauka, estatu kideak kontuan hartuko du itzulera-erabakia hartzean bukatu gabe dagoen prozedura amaitzen den arte atzeratu dezakeela erabakia, 6. paragrafoan xedatutakoan kalterik eragin gabe.

6. Zuzentarau honek ez du eragotziko estatu kideek egoera irregular bat amaitzeari buruzko erabakia hartzea, itzulera- eta/edo kanporatze-erabaki eta/edo sarrera-debeku batekin batera, erabaki edo jardura administratibo edo judizial bakarrean, hori xedatzen badu legedi nazionalak. Dena den, bete egin beharko dira III. Kapituluaren aurreikusitako prozedura-bermeak, bai eta Erkidegoko eta estatuko zuzenbideko beste xedapen batzuek aurreikusitakoak ere.

7. artikulua

Borondatez irtetea

1. Itzulera-erabakiak epe egoki bat ezarriko du borondatez irteteko, zazpi eta hogeita hamar egunen bitartekoa. Dena den, 2. eta 4. paragrafoetan salbuespenak ageri dira. Estatu kideek legedi nazionalen xedatu dezaket epe hori hirugarren herrialde bateko nazional batek eskatzen duenean soilik emango dela. Kasu horretan, estatu kideek hirugarren herrialdeko nazionalen eskari hori aurkezteko aukera dutela jakinaraziko diete. Lehenengo paragrafoan ezarritako epeak ez die hirugarren herrialdeetako nazionalen lehenago irteteko aukera kentzen.

2. Estatu kideek borondatez irteteko epea zuhurtziazko tarte batez luzatzeko aukera izango dute, kasu bakoitzaren ezaugarriei erreparatuz; esaterako, egonaldia iraupena, eskola-adinean dauden umeak egotea eta beste familia- eta gizarte-lotura batzuk izatea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Borondatezko irteera-epean zenbait betebeharrak ezarri ahalko dira ihes egiteko arriskua ekiditeko; esate baterako, aldiaren behin agintarien aurrean aurkeztea, fidantza egokia uztea, dokumentuak entregatzea edo toki jakin batean gotera behartzea.

4. Ihes egiteko arriskua bada, edo egonaldi legala izateko eskaera ezeztatzen bada, oinarririk ez duelako edo eskatzaileak ordena publikoa edo estatuaren segurtasuna arriskuan jar dezakeelako, estatu kideek borondatez irteteko eperik ez ematea erabaki dezakete, edo zazpi egun baino gutxiagoko epea ematea.

8. artikulua

Kanporatzea

1. Estatu kideek itzulera-erabakia betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte 7. artikuluko 4. paragrafoaren arabera borondatez irteteko epea eman ez denean, edo irteteko betebeharra ez denean bete 7. artikulua arabera emandako borondatez irteteko epean.

2. Estatu kide batek 7. artikulua arabera borondatez irteteko epea eman badu, itzulera-erabakia epe hori bukatu denean soilik betearaziko da, ez bada epe horretan ihes egiteko arriskuren bat sortu, 7. artikulua 4. paragrafoa kontuan hartuta.

3. Estatu kideek kanporatzea agintzen duen erabaki edo jardura administratibo edo judizial bereizia onartu ahalko dute.

4. Kanporatzearen aurka dagoen hirugarren herrialde bateko nazional bat kanporatzeko azken baliabide gisa estatu kideek hertsaneurriak erabiltzen dituztenean, erabilitako neurriak proportzionatuak izango dira eta baliatuko den indarra ez da arrazoizkotik haratago joango. Legedi nazionalak xedatzen duenaren arabera aplikatuko dira, hirugarren herrialdeko nazional horren oinarriko eskubideekin bat etorritik eta horren duintasuna eta osotasun fisikoa behar bezala errespetatuz.

5. Hirugarren herrialdeko nazionala airez kanporatzen bada, estatu kideek kontuan hartuko dituzte aireko kanporaketa bateratuen segurtasun-arauei buruzko jarraibide bateratuak, 2004/573/EE Erabakiari atxikitakoak.

6. Estatu kideek nahitaezko itzulera kontrolatzeko sistema eraginkorra sortuko dute.

9. artikulua

Kanporaketa atzeratzea

1. Estatu kideek kasu hauetan atzeratuko dute kanporaketa:

a) ez itzultzeko printzipioa hausten duenean,

b) 13. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki eten egin denean.

2. Estatu kideek kanporaketa denbora-tarte egoki batez atzeratu ahalko dute, kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzak kontuan hartuta. Hain zuzen ere, estatu kideek kontuan hartuko dute:

a) hirugarren herrialdeko nazionalaren egoera fisikoa edo gaitasun mentala;

b) arrazoi teknikoak direla medio kanporaketa ezin burutzea, adibidez, garraio-gaitasunik ez dagoelako identifikatu gabe dagoelako.

3. Kanporaketa atzeratuz gero, 1. eta 2. paragrafoan xedatzen den bezala, 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen diren betebeharrak ezarri ahalko zaizkio hirugarren herrialdeko nazional horri.

10. artikulua

Bakarrik dauden adin txikikoen itzulera eta kanporaketa

1. Bakarrik dagoen adin txikiko bati buruzko itzulera-erabakia hartu baino lehen, itzulera burutzeko ardura duten agintarien zerbitzuen laguntza emango zaie, bereziki kontuan hartuta haurren interes gorenak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Estatu kide baten lurraldetik bakarrik dagoen adin txikiko bat kanporatu baino lehen, estatu kide horretako agintariak ziurtatu beharko du adin txikikoa bere senide bati emango zaiola, aukeratutako tutore bati edo itzulera-estatuko harrera-zerbitzu egokiei.

11. artikulua

Sarrera debekatzea

1. Itzulera-erabakiak sartzeko debekuarekin batera joango dira:

a) ez bada denbora-tarterik eman borondatez irteteko, edo

b) itzulera-betebeharra ez bada bete.

Beste kasu batzuetan, itzulera-erabakiekin batera sarrera-debekuak joan ahal izango dira:

2. Sarrera-debekuaren iraupena kasu bakoitzaren egoera eta baldintza guztiak kontuan hartuta zehaztuko da, eta printzipioz, ez da bost urte baino gehiagoz indarrean egongo. Bost urte baino gehiagoz luzatuko da, hala ere, hirugarren herrialdeko nazional batek ordena publikoa, segurtasun publikoa edo segurtasun nazionala arrisku larrian jar badezake.

3. Estatu kideek 1. paragrafoaren arabera hirugarren herrialdeko nazional baten aurka emandako sarrera-debekua baliogabetu edo bertan behera uzteko aukera kontuan hartuko dute, nazional horrek estatu kidearen lurraldea itzulera-erabakia erabat betez uzten duela erakutsi badezake.

2004ko apirilaren 29ko 2004/81/EE Zuzentarauari ⁽¹⁾ jarraituz egoitza-baimena jaso duten gizakien salerosketen biktimek ez dute sarrera debekatuta izango, 1. paragrafoko lehen lerrokadako b) idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, betiere hirugarren herrialdeko nazional horrek ordena publikoa, segurtasun publikoa edo segurtasun nazionala arriskuan jartzen ez badu. 2004/81/EE Zuzentzarua Kontseiluarena da, gizakien salerosketako biktimak edo legez kontrako immigrazioa laguntzeko ekintza batean parte hartu duten hirugarren herrialdeetako herritarrei agintari eskudunekin lan eginez gero egoitza baimena emateari buruzkoa.

Kasu jakinetan estatu kideek aukera dute sarrera-debekurik ez emateko, hura ezeztatzeko edo bertan behera uzteko, arrazoi humanitarioak direla medio. Estatu kideek sarrera-debekua ezeztatu edo bertan behera utzi ahalko dute kasu jakinetan edo kasu-mota batzuetan, beste arrazoi batzuk direla medio.

4. Estatu kide batek sarrera debekatu dion hirugarren herrialde bateko nazional bati beste estatu kide batek egoitza-baimena edo gelditzeko eskubidea ematen dion beste baimen bat ematen badio, azken estatu kide horrek lehenengo eta behin sarrera-debekua eman duen estatu kidearekin hitz egin beharko du eta haren interesak kontuan hartu, Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmeneko 25. artikuluari jarraiki ⁽²⁾. 5. 1. paragrafotik 4.era bitartekoak nazioarteko babeserako eskubidean eraginik izan gabe aplikatuko dira estatu kideetan, Kontseiluaren 2004/83/EE Zuzentarauaren ⁽³⁾ 2. artikuluko a) idatz-zatiak xedatzen duen bezala. 2004/83/EE Zuzentzarua 2004ko apirilaren 29koa da, eta hirugarren herrialdeetako nazionalak edo aberriak errefuxiatutzat edo nazioarteko beste babes-mota bat behar duten pertsonatzat aitortzeko eta estatutu hori emateko behar diren eskakizunei buruz eta emandako babesaren edukiari buruz gutxienezko arauak ezartzen ditu.

III. KAPITULUA

PROZEDURAZKO BERMEAK

12. artikulua

¹ L 261 EO, 2004.8.6koa, 19. or.

² L 239 EO, 2000.9.22koa, 19. or.

³ L 304 EO, 2004.9.30ekoa, 12. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Forma

1. Itzulera-erabakiak eta sarrera debekatzeko eta kanporatzeko erabakiak —ematen badira— idatziz emango dira eta egitatezko eta zuzenbideko oinarriak jasoko dituzte. Erabakiaren aurka egiteko errekurso-motei buruzko informazioa ere idatziz jasoko da.

Egitatezko oinarriak mugak izan ditzake Zuzenbide nazionalak informazio-eskubidea mugatzen uzten badu, bereziki herrialdeko segurtasuna, defentsa, segurtasun publikoa, eta delituak prebenitu, ikertu, antzeman eta jazartzen direla bermatzeko.

2. Aurretik eskatuz gero, estatu kideek itzulerari buruzko erabakien elementu nagusien idatzizko edo ahozko itzulpena emango dute, 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki. Horren barruan egongo da eskura dituen errekurso-motei buruzko informazioa, hirugarren herrialdeko nazionalak uler dezakeen edo nahiko uler dezakeela uste den hizkuntza batean.

3. Estatu kideek aukera dute 2. paragrafoa ez aplikatzeko estatu kide baten lurraldean modu ilegalean sartu eta ondoren bertan gelditzeko eskubiderik edo baimenik jaso ez duten hirugarren herrialde bateko nazionalak.

Horrelako kasuetan, 1. paragrafoan aipatzen dituen itzulerari buruzko erabakiak legedi nazionalak xedatzen duenaren araberrako inprimaki-eredu baten bidez emango dira.

Inprimaki-ereduaren elementu nagusien berri emateko, estatu kideek informazio-liburuxkak argitaratuko dituzte estatu kide horretara iristen diren etorkin ilegalek erabiltzen edo hobekien ulertzen dituzten bost hizkuntzatan, gutxienez.

13. artikulua

Errekurtso-bideak

1. Hirugarren herrialdeko nazionalari eskubide eraginkorra emango zaio itzulerari buruzko erabakien aurkako errekursoa aurkezteko edo horiek berrikusteko, 12. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera. Errekurtsoa jurisdikzio-erakunde baten aurrean, administrazio-agintari baten aurrean edo kide inpartzialez osatutako eta guztiz independentea izatearen bermea duen beste edozein erakunderen aurrean aurkeztu beharko du.

2. 1. paragrafoan aipatutako agintari edo erakundeek 12. artikuluko 1. paragrafoak aipatzen dituen itzulerari buruzko erabakiak berrikusteko eskuduntza izango dute, eta horien gauzatzea aldi baterako bertan behera uztekoa ere bai, aldi baterako bertan behera uztea legedi nazionalaren arabera aplikatzekoa denean.

3. Hirugarren herrialdeko nazionalak aholkularitza juridikoa eta ordezkaritza jasotzeko aukera izango du, eta hala beharrez gero, hizkuntzako laguntza ere bai.

4. Aurretik eskatuz gero, estatu kideek laguntza juridikoa eta/edo beharrezko ordezkaritza legala, ematen bada, dohainik emango dela bermatuko dute, horri dagokion legedi nazionalaren eta doako ordezkaritza legalari buruzko arauen arabera, eta doako laguntza juridiko eta/edo ordezkaritza legal hori 2005/85/EE Zuzentarauaren 15. artikuluko 3. paragrafoetik eta 6.era bitartean xedatutako baldintzen menpe egotea erabaki ahalko dute.

14. artikulua

Itzulera itzaroten dagoen bitarteko bermeak

1. 16. eta 17. artikuluetan jasotako egoerak salbu, estatu kideek ahal den neurrian hurrengo printzipioak kontuan hartuko direla bermatuko dute, 7. artikuluari jarraiki hirugarren herrialdeko nazionalak borondatez irteteko epean eta 9. artikuluari jarraiki kanporaketa atzeratzeko epeetan:

- a) lurralde horretan dauden senideekin familia-unitatean edukitzea;
- b) larrialdietako osasun-laguntza eta gaixotasunen oinarritzko tratamendua ematea;
- c) egonaldia iraupenak horrela eskatzen badu, adin txikikoak oinarritzko irakaskuntza-sisteman egotea;
- d) pertsona ahulenen behar bereziak kontuan hartzea.

2. Legedi nazionalaren arabera, estatu kideek borondatez irteteko epea luzatu izana idatziz helaraziko die 1. paragrafoan aipatutako pertsonen, 7. artikuluko 2. paragrafoari jarraituz, edo itzulera-erabakia ez dela aldi batez gauzatuko.

IV. KAPITULUA

KANPORATZEKO BARNERATZEA

15. artikulua

Barneratzea

1. Hain hertsakorak ez diren neurriak nahiko modu eraginkorrean aplikatu ahal diren kasu jakin batzuetan izan ezik, estatu kideek itzulera-prozeduretan dauden hirugarren herrialdeko nazionalak barneratuta eduki ahalko dituzte, helburua itzulera prestatzea edo kanporatze-prozesua martxan jartzea dela, eta, batez ere, egoera hauetan:

a) ihes egiteko arriskua badago, edo

b) hirugarren herrialdeko nazionalak itzuleraren prestaketa edo kanporatze prozesua oztokatzen badu edo saihesten badu. Barneratzea ahal bezain laburra izango da eta kanporaketa-tramiteak behar besteko arretarekin egiten eta gauzatzen diren bitartean soilik iraungo du.

2. Barneratzea administrazio- edo justizia-agintariak aginduko dute. Barneratzea idatziz aginduko da eta egitatezko eta zuzenbideko oinarriak behar bezala azalduko dira. Barneratzea administrazio-agintari batek agindu badu, estatu kideek:

a) barneratzearen legezketasuna egiaztatze kontrol judizial bizkorra ezarriko dute, barneratzea hasten denetik ahal bezain azkar; edo

b) hirugarren herrialdeko nazional bati prozedura bat hasteko eskubidea emango diote, barneratze-prozesu horren legezketasuna egiaztatze kontrol judizial bizkorra izan dezan; kontrol hori prozedura hasten denetik ahal bezain azkar egin beharko da. Kasu horretan, estatu kideek hirugarren herrialdeko nazionalari zuzenean jakinaraziko diote prozedura hori hasteko aukera duela.

Barneratzea legez kanpokoak izanez gero, hirugarren herrialdeko nazionala berehala askatuko dute.

3. Kasu guztietan barneratze-neurria arrazoizko denbora-tarteetan berraztertuko da, hirugarren herrialdeko nazionalak eskatuta zein ofizioz. Barneratze-tarteak luzeak badira, berraztertzeak agintari judizial batek gainbegiratuko ditu.

4. Arrazoi juridikoak edo bestelakoak direla medio, zentzuz uste bada ez dela kanporatuko, edo 1. paragrafoan deskribatutako baldintzak betetzen ez badira, barneratzea ez da justifikatuta egongo eta barneratutako pertsona berehala askatu beharko da.

5. Barneratzeak 1. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean eta kanporatzea burutuko dela bermatzeko beharrezkoa den bitartean iraungo du. Estatu kide bakoitzak barneratze-tarte mugatu bat ezarriko du, eta tarte horrek ezingo du sei hilabete baino gehiagokoa izan.

6. Estatu kideek 5. paragrafoan aurreikusitako epea hamabi hilabete baino luzeagoa ez den epe mugatu batez luzatu ahalko dute, legedi nazionalaren arabera, haien aldetik egin ahal zuten guztia egin ondoren, kanporatze operazioa honako arrazoi hauengatik luzatu behar denean:

a) hirugarren herrialde bateko nazional horren lankidetzatza eza, edo

b) hirugarren herrialdeetan beharrezko dokumentuak lortzea atzeratzen denean.

16. artikulua

Barneratzearen baldintzak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Arau orokor gisa, barneratze-zentro berezituak erabiliko dira. Estatu kide batek ezin duenean eskaini barneratze-zentro berezitu batean barneratzea eta espetxe bat erabili behar denean, hirugarren herrialdeko nazionalak preso arruntetik berezita barneratuko dituzte.
2. Aurretik eskatuz gero, barneratze-erregimenean dauden hirugarren herrialdeetako nazionalak baimena emango zaie une egokian haien ordezkari legalekin harremanetan jartzeko, bai eta haien senideekin edo kontsulatu eskudunetako agintariekin ere.
3. Arreta berezia jarriko zaie pertsona ahulenek bizi dituzten egoerei. Larrialdiko osasun-arreta emango zaie eta gaixotasunen oinarriko tratamendua.
4. Estatuak, nazioarteko eta gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeek 1. paragrafoak aipatzen dituen barneratze-zentroak bisitatu ahalko dituzte, kapitulu honen arabera hirugarren herrialdeko nazionalak barneratzeko erabiltzen diren neurrian. Bisita horiek egiteko aurretiazko baimena izatea eskatu ahal izango da.
5. Barneratze-erregimenean dauden hirugarren herrialdeko nazionalak aplikatu daitezkeen arauak buruzko informazioa modu sistematikoan jasoko dute zentroan, eta eskubide eta betebeharrak buruzko guztia, baita legedi nazionalaren arabera 4. paragrafoak aipatzen dituen elkarte eta erakundeekin harremanetan jartzeko eskubideari buruzkoa ere.

17. artikulua

Adin txikikoak eta familiak barneratzea

1. Bakarrik dauden adin txikikoak eta adin txikikoak dituzten familiak azken neurri gisa soilik barneratuko dituzte, eta ahal den epe laburrenean.
2. Kanporatuak izateko itxaroten dauden barneratutako familiei ostatu berezia eskainiko zaie, intimitate-maila egokia izan dezaten.
3. Barneratutako adin txikikoei aisialdi-ekintzetan parte hartzeko aukera emango zaie —baita haien adinerako egokiak diren joko eta jolasetan parte hartzeko ere— eta, egonaldiaren iraupenak hala eskatzen badu, hezkuntza jasotzeko aukera izango dute.
4. Bakarrik dauden adin txikikoei, ahal den neurrian, haien adinaren beharrak kontuan hartzen dituzten langileak eta instalazioak dituzten erakundeetan ostatu hartzea erraztuko zaie.
5. Umearen interes gorena kontuan hartzeko lehen mailako gaia da, kanporatuak izateko itxaroten ari diren adin txikikoen barneratzean.

18. artikulua

Larrialdi-egoerak

1. Itzuli behar diren hirugarren herrialdeetako nazionalen kopuru bereziki handia biltzea dakarren egoera bereziak aurreikusitako gabeko karga garrantzitsua bihurtzen badira estatu kide baten barneratze-instalazioen edukierarako edo administrazioko edo epaitegietako langileentzat, estatu kideak, egoera hori aldatzen ez den bitartean, 15. artikuluko 2. paragrafoko 3. lerroak xedatutako kontrol judizialerako epe luzeagoak baimendu ahalko ditu, eta 16. artikuluko 1. paragrafoan eta 17. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako barneratze-baldintzen gaineko premiazko neurriak hartu ahalko ditu.
2. Horrelako salbuespeneko neurriak erabiltzen direnean, estatu kideak Batzordeari horien berri eman beharko dio. Salbuespeneko neurri horiek aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak desagertu bezain azkar, Batzordeari jakinaraziko dio hori.
3. Estatu kideak neurri egokiak, orokorrak edo zehatzak, hartu behar ditu Zuzentarau honen arabera betebeharrak betetzeko, eta artikulua hau ez da interpretatuko betebeharrak orokor horri ihes egiteko.

V. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

19. artikulua

2008/115/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 348/98, 2008/12/24koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Informazioa

Batzordeak hiru urtetik behin jakinaraziko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari Zuzentarau hau estatu kideetan nola aplikatzen den, eta, hala beharrez gero, aldaketak proposatuko ditu. Batzordeak beranduenez 2013ko abenduaren 24an emango du horren berri lehen aldiz, eta kasu horretan 11. artikulua, 13. artikuluko 4. paragrafoa, eta 15. artikulua estatu kideetan aplikatzeari buruz mintzatuko da. 13. artikulua 4. paragrafoari dagokionez, estatu kideetan duen finantza- eta administrazio-eragin gehigarria bereziki ebaluatuko du Batzordeak.

20. artikulua

Zuzenbide nazionalen sartzea

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte Zuzentarau honetan finkatutakoa betetzeko egin beharreko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak, 2010eko abenduaren 24rako, gehienez ere. 13. artikuluko 4. paragrafoari dagokionez, estatu kideek indarrean jarriko dituzte Zuzentarau honetan finkatutakoa betetzeko egin beharreko lege-, arau- eta administrazio-xedapenak, 2010eko abenduaren 24rako, gehienez ere. Halaber, lehenbailehen jakinaraziko diote Batzordeari xedapen horien testua.

Estatu kideek onartzen dituzten xedapen horiek erreferentzia egingo diote Zuzentarau honi edo erreferentzia hori izango dute argitalpen ofizialean. Estatu kideek aipatutako erreferentziaren modalitateak ezarriko dituzte.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honekin araututako eremuan onartzen diren xedapen nazional nagusien testuak.

21. artikulua

Schengengo Akordioarekin duen lotura

Zuzentarau honek Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmenaren 23. eta 24. artikuluetako xedapenak ordezkatzeko ditu.

22. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

23. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira erabaki honen hartzaileak, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuari jarraiki.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G.PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, B.LE MAIRE presidentea